

KUTXABANK, S.A.ren SOZIEATEAREN ESTATUTUEN TESTU BATEGINA

I. TITULUA SOZIEATEA

1. artikulua Izen soziala

Sozietatearen izena Kutxabank, S.A. da, eta estatutu hauek eta ezar lekizkiokeen xedapen legalek eraentzen dute.

2. artikulua Helburu soziala

1. Sozietatearen helburu soziala da:

- (i) Oro har bankaren negozioari dagozkion eta indarrean dagoen legediak baimentzen dizkion mota guztietako jarduerak, eragiketak eta zerbitzuak burutzea, baita Baloreen Merkatuko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 63. Artikuluan xedatutako inbertsio-zerbitzuak eta zerbitzu lagungarriak ematea ere.
- (ii) Mota guztietako balore higigarrien erosketa, edukitza, gozamina eta besterentzea.

2. Helburu soziala osatzen duten jarduerak, zeharka garatu litezke erabat edo partzialki, Zuzenbidean onartzen den edozein eratan eta, bereziki, jarduera hauen helburu bera edo antzekoa, gehigarria edo osagarria duten sozietateen akzioen edo partaidetzen titularitatearen bitartez.

3. artikulua Egoitza soziala eta ordezkariak

Bankuak Bilboko Kale Nagusian, 30-32. zenbakian du bere egoitza soziala. Egoitza hau udalerriko beste edonora alda daiteke, Administrazio Kontseiluak hala erabakiz gero.

Bankuak Sukurtsalak, Agentziak eta Ordezkariak sor litzake Bilbon, eta Espainiako nahiz atzerriko probintzia hiriburuetan eta herrietan ere, Administrazio Kontseiluak egoki deritzon edozein tokitan, indarrean dauden xedapenen arabera.

4. artikulua Iraupena

Sozietatea denbora mugagaberako eratu da.

Bere akziodunen Batzar Nagusiak edo, hala badagokio, Akziodun Bakarrak berariaz adosten duen datan ekingo dio bere jarduerari Sozietateak, eta ezin daiteke izan kasu horretarako indarrean dagoen legediak ezarritako epea baino beranduago.

II. TITULUA KAPITAL SOZIALA

5. artikulua Kapital soziala

Bankuaren kapital soziala bi mila eta hirurogei milioi eurokoa da (2.060.000.000), bakoitzak mila eta hogeita hamar euroko (1.030) balio nominala duten bi milioi (2.000.000) akzio nominatibok ordezkaturak, 1etik 2.000.000ra zenbakituarak, zenbaki biak barne, denak mota eta serie berekoak.

Akzio guztiak daude erabat ordainduta.

6. artikulua Kapital handiagotzea eta murriztea

Kapital soziala handitu eta murriztu egin daiteke, legalki, helburu horretarako deitutako Batzar Nagusiak estatutu hauek xedatutako bertaratze quoruma betez gero, eta hala erabakiz gero. Akziodunen Batzar Nagusiak, Administrazio Kontseiluak proposatu ondoren, jaulkipen berri bakoitzaren epeak eta baldintzak zehaztuko ditu eta Administrazio Kontseiluak Batzar Nagusiak gai honi buruz hartutako erabakiak betetzeko beharrezko ahalmenak izango ditu.

Goiko paragrafoan xedatutakoaren kalterik gabe, Batzar Nagusiak administratzaileen esku utz dezake, legean sozietatearen estatutuak aldatzeko xedatuko eskakizunak aintzat hartuta:

1. Kapital soziala handitzeko hartuta dagoen erabakia zein datetan gauzatuko den hitzartutako zenbatekoan zehazteko ahalmena eta honen baldintzak zehazteko ahalmena, Batzar Nagusiaren akordioan xedatu ez den guztian. Ahalmen delegatu hau egikaritzeko epea ezin daiteke urte bat (1) baino luzeagoa izan, obligazioak akzio bihurtzen diren kasuan izan ezik.
2. Behin edo zenbait aldiz sozietatearen kapitala handitzea erabakitzeko ahalmena, zenbateko zehatz bateraino, administratzaileek erabakitzen duten aukeran eta zenbatekoan, Batzar Nagusiari alde aurretik galdetu gabe. Handitze hauek, ezin izango dira, ezein kasutan, baimena ematean Sozietateak duen kapital kopuru erdia baino handiagoak izan, eta diru ekarpenen bidez burutu beharko dira, Batzarrak erabakia hartu duenetik aurrera bost (5) urteko epean, gehienez jota.

Eskuordetzearen ondorioz, kapital sozialari buruzko sozietatearen estatutuetakoa artikulua berriz idazteko ahalmena izango dute administratzaileek, handitzea erabaki eta egikaritu ondoren.

Ekarpenen itzulketarengatik kapitala murriztuz gero, akziodunei egingo zaien ordainketa gauzatan egin liteke, betiere 37. Artikuluko 3. atalean xedatutako baldintzak betez gero.

7. artikulua Akzioen ordezkaritza

Akzioak titulu nominatiboek ordezkatzeko dituzte eta liburu taloitegietan luzatuko dira eta korrelatiboki zenbakituta joango dira, eta titulu anitzetan ager daitezke.

Administratzaile batek sinatua joango den akzioaren tituluan legeak exijitzen dituen datuak agertu beharko dira. Administratzaile honen sinadura mekanikoki erreproduzi daiteke, Kapital Sozietateen Legearen (aurrerantzean "LSC") 114. artikulua eskakizunen arabera.

Tituluak inprimatuta izan arte, Sozietatean behin behineko ordezkagiri nominatiboak emango dizkie akziodunei, eta hauek behin betiko titulutan ordezkatzeko dira. Behin-behineko ordezkagiriak liburu taloitegietan luzatuko dira, zenbaki korrelatiboak eramango dituzte eta bertan legeak exijitutako datuak agertuko dira eta administratzaile batek sinatuta joango dira. Sinadura hau mekanikoki erreproduzi liteke.

Akzioak erregistro-liburu berezi batean agertuko dira. Liburu honetan akzioen transferentzia jarraikiak inskribatuko dira, eta titularren izen-abizenak edo sozietatearen izena, nazionalitatea eta helbidea, baita eskubide errealean eraketa eta akzioen gaineko beste edozein karga ere.

8. artikulua Akziodunaren eskubideak

1. Akzioak bere titular legitimoari akziodun izaera ematen dio eta legean eta estatutu hauetan xedatutako eskubideak esleitzen dizkio eta, bereziki, honako hauek:
 - a) Sozietatearen irabazien banaketan eta likidaziotik eratorritako ondarean parte hartzekoa.
 - b) Akzio berrien edo akzio bihurtu daitezkeen obligazioen jaulkipenean lehentasuneko harpideduna izatekoa.
 - c) Batzar Nagusietara joan eta bozkatzekoa eta gizarte akordioek kontra joatekoa.
 - d) Informazio eskubidea.
2. Akziodunak bere eskubideak egikaritzeko dituzte Sozietatearen aurrean eta fede onaren exijentzien arabera egingo du.
3. Sozietateak, lege xedapenek eta xedapen administratiboek arautzen duten eran, ez die aitortuko euren partaidetzatik eratorritako eskubide politikoak egikaritzea, edozein mota eta garduko aginduzko arau juridikoak hautsiz akzioak erosten dituztenei. Halaber, Sozietateak publiko egingo du, dagokion arauak zehazten duten eran, bere akziodunek kapitalean duten parte hartzea, hori exijitzen duten baldintzak gertatuz gero.

9. artikulua Botorik gabeko akzioak

1. Sozietateak boto eskubiderik gabeko akzioak jaulki ditzake une bakoitzean ordaindutako sozietatearen kapitalaren ehuneko berrogeita hamar (%50) baino altuagoa ez den zenbatekoan.

2. Botorik gabeko akzioek jaulkipen akordioak ezarritako eskubideak esleituko dizkiete haien titularrei, legearen arabera eta estatutuen dagokien aldaketaren bidez.

10. artikulua Akzio pribilegiatuak

Sozietateak akzio arruntekiko pribilegioren bat duten akzioak jaulki ditzake, LSCren 96. Artikuluan xedatutako motek ematen ez dutena, estatutuak aldatzeko bete beharreko guztiak beteta.

Pribilegioa lehentasunezko dibidendua lortzeko eskubidea denean, Sozietatea dibidenduaren banketa adostera behartuta izango da, banatzeko beste irabazi balego. Batzar Nagusia eta /edo Administrazio Kontseilua, akzioak jaulkitzea erabakitzen den unean, akzio pribilegiatuen titularrek akzio arruntei dagokien dibidendu bera jasotzeko eskubidea izango duten erabakiko dute, behin lehentasunezko dibidendua adostu ondoren.

Banatzeko besteko irabaziak izan ezean edo kopuru nahikoa izan ezean, ordaindu ez den lehentasunezko dibidenduaren zatia, ez galdagarria izan daiteke hurrengo ekitaldietan, akzioak jaulkitzea erabakitzen den unean Batzar Nagusiak adostutako terminoetan.

11. artikulua Akzioak eskuz aldatzeko erregimena

Sozietatearen akzioak eta akzio hauei dagokien eskubide ekonomikoak askatasunez eskualdagarriak izango dira, kreditu erakundeei ezar dakiekeen sektoreko legediak xedatutako aginduzko baimenen edo jakinarazpenen kalterik gabe.

12. artikulua Obligazioen jaulkipena

1. Sozietateak obligazioak jaulki ditzake legean xedatutako terminoen arabera.
2. Batzar Nagusiak administrazio organoan eskuorde dezake obligazio bakunak edo bihurturriak eta /edo trukagarriak. Administrazio Kontseiluak aipatutako eskuordetzea erabil dezake behin edo zenbait aldiz eta bost urteko epean, gehienez jota.

Batzar Nagusiak, halaber, Administrazio Kontseiluari eman diezaioke baimena, adostutako jaulkipena zein unetan gauzatuko den zehatz dezan, baita Batzar Nagusiaren akordioan xedatu ez diren gainontzeko baldintzak zehatz ditzan ere.

3. Obligazio bihurturriak eta /edo trukagarriak truke-erlazio finkoz (zehatza edo zehazgarria) jaulki litezke edo truke-erlazio aldakorrez. Jaulkipen akordioak zehaztuko du bihurteta edo truke ahalmena obligaziodunari ala Sozietateari dagokion edo, kasuan kasukoa, bihurteta derrigorrez egingo den une zehatz batean.

13. artikulua Beste balore batzuk

1. Sozietateak ordaindukoak, *warrants*, lehentasunezko partaidetzak edo aurreko artikuluetan zehaztutakoak ez diren beste balio batzuk jaulki litzake, ezargarria den araudiak xedatutako eskakizunak betez gero.
2. Batzar Nagusiak administrazio organoan eskuorde dezake balore horiek jaulkitzeko ahalmena. Administrazio Kontseiluak aipatutako eskuordetzea erabil dezake, behin edo zenbait aldiz, eta bost (5) urteko epean, gehienez jota.

Batzar Nagusiak, halaber, Administrazio Kontseiluari eman diezaioke baimena, adostutako jaulkipena zein unetan gauzatuko den zehatz dezan, baita Batzar Nagusiaren akordioan xedatu ez diren gainontzeko baldintzak zehatz ditzan ere.

III. TITULUA

SOZIETATEAREN ORGANOAK

14. artikulua Sozietatearen aginte-organoak

Sozietatearen aginte-organoak akziodunen Batzar Nagusia eta Administrazio Kontseilua dira.

LEHENENGO KAPITULUA

BATZAR NAGUSIAK

15. artikulua Batzar Nagusia

Batzar Nagusia akziodunen batzarra da, behar bezala deitua eta eratua. Hartzen dituen erabakiak derrigorrez bete behar dituzte akziodun guztiek, disidenteeek eta bertaratu ez direnek ere, legeak akziodunei ematen dizkien eskubideen eta ekintzen kalterik gabe.

16. artikulua Batzar Nagusi motak

Batzar Nagusiak ohikoak eta apartekoak izan daitezke eta Sozietatearen administratzaileek deitu behar dituzte.

Ohiko Batzar Nagusia, aldez aurretik horretarako deitua, derrigorrez bilduko da urtean behin (1), sozietatearen ekitaldi bakoitzeko lehen sei (6) hilabetetan, eta hala badagokio, sozietatearen kudeaketa eta aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko eta irabaziak nola erabili erabakitzeko. Ohiko Batzar Nagusia balekoa izango da epez kanpo deitua edo egina izan arren.

Goiko paragrafoan xedatutakoa ez den Batzar Nagusi oro, aparteko Batzar Nagusia izango da.

Aparteko Batzar Nagusia Administrazio Kontseiluak erabakitzen duenean bilduko da edo sozietatearen kapitalaren akziodun titular kopuruaren ehuneko bostek (%5), gutxienez, eskatzen duenean. Eskieran Batzarrean zein gairi buruz hitz egingo den adierazi behar dute.

17. artikulua Deialdia

Batzar Nagusiak, ohikoak nahiz apartekoak, Sozietatearen web orrian argitaratutako iragarki bidez deitu behar dira edo aipatutako web orri hori indarrean dagoen araudiaren arabera sortu, inskribatu eta argitaratu ez balitz Merkataritza Erregistroaren Buletin Ofizialean eta Bankuaren egoitza soziala dagoen probintziako irakurle gehien duen egunkariren batean, batzarra egiteko zehaztu den data baino hilabete bat (1) lehenago, gutxienez. Iragarki horretan, hala badagokio, Batzarra bigarren deialdian zein datetan bilduko den adieraziko da, eta lehenengo eta bigarren deialdien artean, gutxienez, hogeita lau (24) orduko epea igaroko da.

Deialdiak Sozietatearen izena adierazi behar du, bileraren data eta ordua, gai-zerrenda baita deialdia egin duten pertsona edo pertsonen kargua ere. Gainera, gai-zerrenda horretan zein gairi buruz hitz egingo den zehaztuko da.

Sozietatearen kapitalaren, gutxienez, ehuneko bostaren (%5) titularrak diren akzionistek aparteko Batzar Nagusia deitzea eskatuko baliote Administrazio Kontseiluari, Kontseiluak deitu egingo du Batzar hori, eta notario bidez administratzaileei deitzeko eskatu zaien datatik hilabete bat igaro baino lehen egin beharko da.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaren kalterik gabe, Batzar Nagusia behar bezala eratuta geratuko da edozein gairi buruz hitz egiteko, aldez aurretik deitua izateko beharrik gabe, sozietatearen kapital osoa bertan dagoen edo ordezkaturik dagoen guztietan eta bertaratuak aho batez erabakitzen badute bilera egitea.

Batzar Nagusia Sozietatean egoitza soziala duen udalerrian egingo da. Hala ere, Batzar Nagusia lurralde nazionalerako beste edozein lekutan burutzea erabaki dezake Administrazio Kontseiluak eta horrela adieraziko du deialdian.

18. artikulua Quoruma

1. Akziodunen Batzar Nagusia, ohikoa nahiz apartekoa, era baliagarrian eratuta geratuko da lehenengo deialdian, bertan dauden edo ordezkaturik dauden akziodunen kopuruak botoa emateko eskubidea duen harpidetutako kapital sozialaren ehuneko hogeita bost (%25) duenean. Bigarren deialdian, balekoa izango da Batzarrean eraketa, bertaratu den kapital kopurua edozein delarik ere.
2. Goiko atalean xedatutakoa ezar daitekeen legediak edo estatutu hauek une bakoitzean xedatzen dituen quorum eskakizun berezien kalterik gabe ulertuko da, hemen xedatutakoak baino zorrotzagoak baldin badira.

19. artikulua Batzarretara joatea

LSCren 184. eta 186. artikuluetan xedatutakoaren kalterik gabe, bertaratzeko eskubidea duen akziodun oro

pertsonalki joan daiteke Batzar Nagusietara edo beste pertsona bat joan daiteke bere ordeaz, nahiz eta azken hau akzioduna ez izan. Ordezkaritza idatziz eman beharko da edo legeak ezarritako eskakizunak betetzen dituen urruneko komunikabideen bidez, eta izaera bereziaz, Batzar bakoitzak.

Akzio nominatiboaren erregistro-liburuan Batzarra egingo den eguna baino bost (5) egun lehenago haien akzioak inskribatuta dituzten akziodunek Batzarretara joateko eskubidea izango.

Administratzaileek Batzarretara joan beharko dute.

20. artikulua Mahaiaren eraketa. Deliberazioak. Akordioak hartzea

1. Kontseiluko Presidenteak edo, hau ez balego, lehenengo Presidenteordea edo, hau ez balego, bigarren Presidenteordea edo, hauek biak ez baleude, Batzarrak izendatzen duen akzioduna izango da akziodunen Batzar Nagusien Presidenteak.

Kontseiluko Idazkaria edo, hau ez balego, Idazkariordea, edo hauek biak ez baleude, Batzarrak izendatzen duen pertsona izango da Batzarreko Idazkaria.

Batzar Nagusiko Presidenteak egoki deritzon edozein pertsona bertaratzeko baimena eman dezake, hala ere, Batzarra berak atzera botoa dezake baimen hori.

Presidenteak zuzenduko ditu deliberazioak, eta hitza emango du, ordenari zorrotz jarraiki, idatziz eskatu duten akziodun guztiei; eta gero ahoz eskatzen dutenei.

Eguneko gai-zerrendan agertzen den puntu bakoitza banan-banan bozkatuko da.

Akzio bakoitzak boto bat emateko eskubidea ematen du.

2. Akordioak Batzarrera bertaratu diren edo ordezkaturik dauden akziodunen botoen gehiengo arruntez hartuko dira.

Hala ere, edozein kasutan, bertaratu diren edo ordezkaturik dauden, eta gutxienez, botoa eskubidea duen harpidetutako kapitalaren ehuneko berrogeita hemeretzia (%59) duten akziodunen aldeko botoa eskatuko da, Batzar Nagusiak honako akordio hauek balekoak izan daitezten:

- (i) Sozietatearen kapitala handitzea, lehentasun eskubidearen ezabatze osoa edo partzialarekin, eta sozietatearen kapitala murriztea. Salbuetsi egiten dira ezar daitezkeen araudia betetzeko edo gainbegiratze agintariek eskatuta beharrezkoak diren kapital handitzeak. Edozein kasutan lehentasun eskubidea aitortzen da ezar daitezkeen legearen terminoetan.
- (ii) Obligazio bihurtzeko, aukeren, *warrants*en edo akzioak erosi edo harpidetzeko eskubidea ematen duten beste edozein balorearen jaulkipena.
- (iii) Aktibo eta pasiboaren eraldaketa, bat-egitea, bereizketa, desegitea edo lagatze globala.
- (iv) Kontseilari kopurua zehaztea, Estatutu hauen 25. Artikuluan ezarritako gutxienezkoa eta gehiengoaren artean.
- (v) Sozietatearen estatutuen aldaketa.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa ezar daitezkeen legediak une bakoitzean xedatzen dituen gehiengo eskakizun berezien kalterik gabe ulertuko da, hemen xedatutakoak baino zorrotzagoak baldin badira.

3. Aurreko ataletan xedatutakoaren kalterik gabe, akordioak idatziz har ditzake Batzar Nagusiak eta bilerarik egin gabe, postaz edo urruneko beste edozein komunikabideren bidez, beti ere botoa ematen dutenen identitatea behar bezala bermatuta badago baita haien botoaren zintzotasuna ere.

21. artikulua Batzar Nagusiaren atribuzioak eta eskumenak

Ohiko Batzar Nagusiari dagokio:

1. Administrazio Kontseiluak aurkeztu dituen aurreko ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak eta Kudeaketa Txostena aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. Gizarte-kudeaketa onartzea.
3. Irabaziak nola erabiliko diren erabakitzea.

Legalki edo estatutuen arabera Batzarraren eskumena izango den beste edozein gai, Batzarrak berak erabaki dezake ohiko edo aparteko bilera batean.

22. artikulua Aktak

Ohiko nahiz aparteko Batzar Nagusien deliberazioak, liburu berezi batean idatziko diren aktetan jasoko dira eta Presidenteak eta Idazkariak edo ordezkatu dituzten pertsonak sinatuko dituzte. Akta Batzarrak berak onar dezake egin eta jarraian edo, honen ezean eta hamabost (15) eguneko epean, Presidenteak eta bi (2) kontu-hartzailek. Kontu-hartzaile hauetariko bat gehiengoak izendatuko du eta bestea gutxiengoak.

BIGARREN KAPITULUA

1. atala.- ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

23. artikulua Administrazio Kontseilua

1. Administrazio Kontseilua Sozietatea zuzendu, administratu eta ordezkatzeko ardura duen organoa da, hau guztiau akziodunen Batzar Nagusiari dagozkion eskumenen kalterik gabe.
2. Administrazio Kontseilua ezar dakizkiokeen lege arauak eta estatutu hauek eraenduko dute. Era berean, Kontseiluak Administrazio Kontseiluaren araudia onartuko du: Araudi honek Kontseiluaren funtzionamendu eta barne erregimen arauak izango ditu, baita bere kargu eta batzorde delegatuenak ere eta osatzen duten kideen portaera arauak ere. Administrazio Kontseiluaren araudia erakunde gobernuaren praktika onenetan inspiratuko da. Administrazio Kontseiluaren araudia onartzen denean eta aldatzen denean Batzar Nagusiari jakinaraziko zaio.

24. artikulua Administrazio eta gainbegiratze ahalmenak

1. Administrazio Kontseiluak Sozietatea administratu eta ordezkatzeko eskumen zabalenak ditu eta, Batzar Nagusiaren eskumenari dagozkion gaietan izan ezik, ezar daitekeen legedian eta sozietatearen estatutu hauetan xedatutakoaren arabera, erabakiak hartzeko Sozietatearen organo gorena da.
2. Administrazio Kontseiluak era eskuordetu ezinean hartuko ditu bere gain, bere ezagutza zuzenari erreserbatutako ahalmenak, baita gainbegiratze funtzio orokorra arduratsu egikaritzeko behar diren beste guztiak ere. Zehazki, Administrazio Kontseiluak bere ezagutza eta erabaki eskusiborako erreserbatuko ditu honako eskumen hauek:
 - (i) 28.7 artikuluko (i) hitz-tartetik (iv) tartera aipatutako akordioetariko edozein onartzea;
 - (ii) Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta Sozietatearen Irabaziak Erabiltzeko Proposamena egitea;
 - (iii) kontseilariak izendatzea kooptazioz eta Batzar Nagusiari kontseilariak izendatzea, berrestea, berrautatzea edo kargua uztea proposatzea;
 - (iv) Administrazio Kontseiluko barne-karguak izendatzea eta berritzea baita Kontseiluaren barruan eraturako batzordeen kideak eta karguak, baita Kontseilari Delegatua izendatzea ere;
 - (v) sozietatearen estatutuen arabera ordainsari-politika eta kontseilarien ordainsaria finkatzea, Ordainsari Batzordearen proposamenari jarraiki;
 - (vi) Sozietateko goi mailako zuzendarien izendapena eta kargugabetzea adostea, hauen ordainsari-politika onartzea, baita haien kontratuetako oinarritzko baldintzak ere, eta kargugabetze kasuetan gerta litezkeen konpentsazioak edo indemnitzazioak finkatzea. Hau guztiau Izendapen Batzordeak edo Ordainsari Batzordeak, ezargarria denaren arabera, alde zuzenetik txosten bat eginda;
 - (vii) Administrazio Kontseiluko kideen, Zuzendari nagusien edo parekoen, barne kontrol funtzioen arduradunen eta Kutxabank, S.A.ko beste zenbait lanpostu giltzarrietako kideen Egokitasunaren Ebaluazio Politika onartzea (aurrerantzean, "Egokitasunaren Ebaluazio Politika"), baita gerora etor litezkeen aldaketak ere;
 - (viii) Egokitasunaren Ebaluazio Politikari lotutako ebaluazio sistemak onartzea, baita gerora etor litezkeen aldaketak ere;

- (ix) Egokitasunaren Ebaluazio Politikari lotutako kolektiboen prestakuntza-planak onartzea, baita gerora etor litezkeen aldaketak ere;
- (x) dibidendu politika formulatzea eta Batzar Nagusiaren arabera irabazien erabilerari buruzko dagozkien proposamenak egitea, baita dibidenduen konturako kopuruen ordainketa adostea ere;
- (xi) bere antolakuntza eta barne-funtzionamendua arauko dituen Administrazio Kontseiluaren Araudia onartzea eta aldatzea, bertan xedatutakoaren arabera;
- (xii) akziodunen Batzar nagusia deitzea;
- (xiii) Batzar Nagusiak onartutako akordioak betearaztea eta Batzar Nagusiak eman diezaiokeen edozein funtzio egikaritzea;
- (xiv) Sozietatearen eta Taldearen estrategia eta politika orokorreko lerroak zehaztea, programak egitea eta bere helburu sozialeko jardura guztiak burutzeko helburuak zehaztea. Batez ere, Administrazio Kontseilua honako hauek onartzeaz arduratuko da: (a) urteko aurrekontua; (b) inbertsio eta finantzaketa politika; (c) erakunde gizarte erantzukizun politika eta (d) Sozietateak auto-zorroari dagokionez jarraitu beharreko politika eta, bereziki, honen mugak;
- (xv) Sozietatearen eta Taldearen kudeaketa osasuntsua eta zuhurra bermatuko duen erakunde-gobernu sistema definitzea – funtzioen banaketa egokia har dezala barne, baita interes-gatazken prebentzioa ere –, ezartzen dela gainbegiratzea eta erantzule izatea. Horretarako, Administrazio Kontseiluak aipatutako sistema horren eraginkortasuna kontrolatu eta ebaluatuko du, urtean behin gutxienez, eta dituen gabeziak konpontzeko beharrezko neurriak hartuko ditu;
- (xvi) Sozietatearen kudeaketa sustatu eta gainbegiratzea, baita ezarritako helburuak bete daitezela ere;
- (xvii) Kontabilitate eta finantza informazio sistemen osotasuna bermatzea, finantza eta eragiketen kontrola barne, eta ezargarria den legedia betetzea ere bai.
- (xviii) Bankuari buruzko informazioa eta komunikazioak hedatzeko prozesua gainbegiratzea.
- (xix) Arriskuen kontrol eta kudeaketa arloari dagokionez:
 - a) Arriskuen kudeaketa eremuan Sozietatearen eta Taldearen jardura lerro nagusiak zehaztuko dituzten printzipioak eta politikak ezartzea. Printzipio eta Politika horiek aldiro-aldiro berrikusi eta eguneratuko dira. Era berean, egoki irizten bazaio, politika bereziak onartuko dira, arrisku-mota esanguratsuenetarako.
 - b) Sozietatearen eta Taldearen kapital-politikaren lerro nagusiak zehaztea eta, egoki iritziz gero, araudiak eskatzen duenarekiko mantendu nahi den norberaren baliabideen soberakina zehaztuko da, baita aurreikusitako kaudimen-mailak bermatzeko eskura dauden baliabideak ere. Aipatutako politika hori kaudimenari buruzko zenbait erakunde-helbururen formulazioan islatuko da. Halaber, Sozietatearen eta Taldearen kaudimen egoeraren planifikazio formalaren emaitzak egunean izango ditu. Planifikazio horrek gerta litezkeen krisi-egoerei aurre egiteko finantza-ahalmena ebaluatzen duten ariketak hartuko ditu barne.
 - c) Arriskuen kudeaketa eremuak zehaztea eta horien gaineko erantzukizunak esleitzea. Horretarako, arriskuen tipologia ofiziala ezarriko du eta horien gaineko erantzukizun-mailak, horrela, elementu biak uztartzeko kudeaketa-eremu desberdinak zehaztuta geratuko dira.
 - d) Arriskuen kudeaketa eremuan antolakuntza-egitura egokia eta nahikoa ematea Sozietateari eta Taldeari, hartara, esleitutako erantzukizunak baliabide tekniko eta giza baliabide nahikorekin batera joango dira, emandako funtzioak bete daitezen.
 - e) Sozietateak eta Taldeak aurrean dituen arrisku guztien arrisku-maila, izaera eta kontrol-markoari buruzko informazioa izatea une oro, eta kasu bakoitzean, arrisku bakoitzaren garrantziarekiko proportzionala izan dadila ezagutza-maila.

- (xx) erakunde-antolakuntzaren oinarriak finkatzea, honen eraginkortasun onena bermatzeko helburuz eta Administrazio Kontseiluak gainbegiratze egokia egiteko helburuz; eta
 - (xxi) Sozietateak bere ohiko jardueratik kanpo bere kontseilari eta akziodun esanguratsuekin egin ditzakeen eragiketa garrantzitsuen onarpena.
3. Administrazio Kontseiluaren ordezkariak ahalmenak estatutu hauetan zehaztutako helburu sozialean jasotako ekintza guztietara zabalduko da.
 4. 27.2 hurrengo artikuluan xedatutakoaz gain, Administrazio Kontseiluak bere ahalmen guztiak edo batzuk eskuorde ditzake (salbu eta lege, estatutu edo Administrazio Kontseiluaren araudiaren xedapenez eskuorde ezinak direnak) izendatzen dituen Batzordeetan, betiere, indarrean dagoen legediaren arabera, eskuordegarriak badira, baita mota guztietako ahalorde orokor eta bereziak ematea, ordezkatzeko ahalmenarekin edo ahalmenik gabe eta baliogabetzea.

25. artikulua Kontseiluaren osaketa

Administrazio Kontseilua gutxienez hamar (10) eta gehienez hogeita hamar (20) kontseilariz osatua izango da.

Batzar Nagusiari dagokio Administrazio Kontseiluko kide kopurua zehaztea. Horretarako, zuzenean jardungo du, kopuru hori berariazko akordioaren bidez zehaztuz edo zeharka, leku hutsak betez edo kontseilari berriak izendatuz, aurreko atalean finkatutako gehieneko mugaren barruan.

Kontseilariak ohore komertzial eta profesional aitortua duten pertsonak izango dira eta ez dira lege xedatutako debeku edo bateraezintasun ezin egoeratan izango. Era berean, finantza-jarduerarekin zerikusia duten gaiei buruzko ezagutza eta esperientzia berezia duten profesionalek lehentasuna izango dute. Kontseilarien alta eta kargu-uztea Espainiako bankuko Goi Mailako Karguen Erregistro Berezian inskribatu beharko da.

Administrazio Kontseilua, Batzar Nagusiari proposamenak luzatzeko bere ahalmenak egikaritzean eta leku hutsak betetzeko kooptazio ahalmena egikaritzean, organoaren osaketan kanpoko kontseilariak edo ez exekutiboek gehiengo zabal ordezkari deitzen saiatuko da kontseilari exekutiboaren aldean, eta haien barruan kontseilari independente arrazoizko kopurua egon dadila, eta azken hauek, gutxienez, kontseilari kopuru osoaren heren bat ordezkari deitzen saiatuko da.

26. artikulua Kontseilari karguaren iraupena

Kontseilariak lau (4) urtez beteko dituzte euren karguak. Batzar Nagusiak berriz aukera ditzake Kontseilariak, egoki deritzon beste bider, eta iraupen epea berbera izango da. Halaber, Batzarrak edozein unetan erabaki dezake edozein kontseilari kargugabetzea.

27. artikulua Kontseiluko karguak

1. Administrazio Kontseiluak izendatuko du Presidentea, bere kideen artean, eta berari dagokio Administrazio Kontseilu horren Presidentzia, baita Administrazio Kontseiluko bi Presidenteorde ere.

Administrazio Kontseiluko Presidentea Sozietatearen Presidente Exekutiboa izango da, eta bere nagusi hierarkiakoa izango da, autoritate hori egikaritzeko ahalmenak izango ditu eta eskuordetuta izango ditu, karguarekin bat baitoaz, Administrazio Kontseiluaren ahalmen guztiak, legalki eskuordetu ezinak daitezkeenak izan ezik edo estatutu hauetan edo Administrazio Kontseiluaren araudian xedatutakoaren arabera eskuordetu ezin daitezkeenak izan ezik, kontseilari delegatuari jarraian dagoen 2. atalean aurreikusitako funtzioak eskatzearen kalterik gabe.

Bere izaera berezia dela eta, Presidente exekutiboari, legean, estatutu hauetan edo Administrazio Kontseiluaren Araudian ezartzen diren beste zenbaiten artean, honako funtzio hauek dagozkio:

- a) Sozietatearen estatutuak betetzen direla eta Batzar Nagusiaren nahiz Administrazio Kontseiluaren erabakiak zintzo egikaritzen direla zaintzea.
- b) Sozietatearen eta bere zerbitzu guztien goi mailako ikuskeraren betetzea.
- c) Kontseilari Delegatuarekin eta Zuzendaritza Nagusiarekin batera lan egitea, negozioen bilakaeraren berri izateko.

Administrazio Kontseiluko Presidenteak boto ebazlea izango du berdinketa kasuetan, eta ezin ditzake aldi berean bete jarraian dagoen 2. atalean aurreikusitako Kontseilari Delegatu kargua.

Urtero, Administrazio Kontseiluak bere presidentearen funtzioen jarduera ebaluatuko du. Horretarako, beharrezko irizten dien beste barne nahiz kanpo baliabide erabiliko ditu. Izendapen Batzordeak helburu horretarako helarazi dion txostena izango du abiapuntu ebaluazio horrek.

2. Administrazio Kontseiluak Kontseilari Delegatu bat izendatuko du bere barnean. Horretarako gutxienez Administrazio Kontseiluko kide kopuru osoaren bi herenen aldeko botoa beharko du. Kontseilari Delegatu horrek negozioaren ohiko kudeaketaren ardura izango du, eta funtzio exekutibo gorenak izango ditu.

Administrazio Kontseiluak Kontseilari Delegatuaren esku utziko ditu bere ahalmen guztiak, legean, estatutu hauetan edo Administrazio Kontseiluaren araudian xedatutakoaren arabera delegatu ezin direnak izan ezik.

Urtero, Administrazio Kontseiluak Kontseilari Delegatuaren funtzioen jarduera ebaluatuko du. Horretarako, beharrezko irizten dien beste barne nahiz kanpo baliabide erabiliko ditu. Izendapen Batzordeak helburu horretarako helarazi dion txostena izango du abiapuntu ebaluazio horrek.

3. Administrazio Kontseiluak, Izendapen Batzordearen proposamenez, Kontseilari Koordinatzailea izendatuko du, Administrazio Kontseiluko kide-kopuru osoaren bi herenaren aldeko botoaz, gutxienez. Kontseilari hori derrigorrez izango da independentea.

Kontseilari Koordinatzaileak honako ahalmen hauek izango ditu, indarrean dagoen markoan, Izendapen Batzordearen proposamenez, Administrazio Kontseiluak eman liezaiokeen beste edozeinen kalterik gabe:

- a) Administrazio Kontseiluko Presidenteari edo, une bakoitzean, bere edozein Batzordeko presidente kargua dutenei, Administrazio Kontseiluaren edo aipatutako batzordeetako edozeinen bilera dei dezala eskatzea; halaber, aipatutako Batzorde horien eguneko gai-zerrendan egoki deritzon beste gai sar dadila eskatzea (nahiz eta batzorde horietako kide ez izan).
- b) Kide ez duten Batzorde eskuordetuen bileretara bertaratzea, dei daitezela berak eskatu badu. Bilera horietan hitza bai, baina botorik ez du izango.
- c) Kanpoko kontseilarien iritziak koordinatzea eta helaraztea. .
- d) Estatutu hauetako 24.2 (xv) artikuluan aurreikusitako Administrazio Kontseiluaren ebaluazioa koordinatzea.
- e) Administrazio Kontseiluko Presidentearen eta Kontseilari Delegatuaren ebaluaketa zuzentzea, eta ebaluaketaren garapenaren eta emaitzaren berri eman beharko dio Izendapen Batzordeari nahiz Administrazio Kontseiluari.

Kontseilari Koordinatzailearen karguaren errebokazioak Izendapen Batzordearen txostena eskatuko du aldez aurretik.

4. Administrazio Kontseiluak Idazkaria izendatuko du. Gerta daiteke Idazkari hau kontseilari ez izatea eta kasu horretan ez du botorik izango. Halaber, baldintza beretan izenda dezake Idazkaria ordezkatzeko duen Idazkariordea.

28. artikulua Kontseiluaren bileren deialdia eta quoruma. Akordioak hartzea

1. Administrazio Kontseilua hilabetean behin bilduko da, oro har, eta gainera, Presidenteak deitzen duen beste aldiz, bere ekimenez, edo Kontseilari Koordinatzailearen edo kontseilari biren eskariz. Deialdia Kontseilari Koordinatzailearen edo bi kontseilariaren ekimenez eskatu izan balitz, eskaera jaso duenetik, ahalik eta epe laburrean, eta edozein kasutan, gehienez jota, hiru (3) laneguneko epean deituko du aparteko batzarra Presidenteak, hurrengo hiru (3) lanegunen barruan egin dadin eta gai-zerrendan batzarra osatuko duten gaiak jakinaraziko ditu.
2. Administrazio Kontseilua idatzizko jakinarazpenaren bidez deituko da. Jakinarazpen hau faxez, posta elektronikoz edo gutunez igorriko zaio kontseilari bakoitzari, bilerarako aurreikusitako eguna baino hiru (3) egun lehenago gutxienez, ebatzi beharreko gaien premiak, presidentearen iritziz, premiazko

deialdia egitera behartzen ez badu. Hala balitz, deialdi hori telefonoz, faxez, posta elektronikoz edo beste edozein bitartekari telematikoz egingo da, bilera izan baino 24 ordu lehenago, gutxienez.

3. Kontseiluaren deialdiak bilera lekua adieraziko du, eta gai-zerrendarekin batera etorriko da. Hala ere, kontseilari orok eska dezake gainontzekoen oniritzia gai-zerrendan sartu ez den beste edozein gairi buruz hitz egitea. Gai-zerrenda Kontseiluak onartuko du bileran bertan. Kontseilari orok proposa dezake bileran bertan, Presidenteak Kontseiluari proposatu dion eguneko gai-zerrendan sartu ez den beste edozein gairi buruz hitz egitea.
4. Administrazio Kontseilua behar bezala eratutzat joko da, kideen kopuru erdia gehi bat bileran bertaratuta edo ordezkatuta daudenean.
5. Kontseilua zenbait aretotan burutu daiteke aldi berean, bideokonferentzia, telefono bidezko askoren arteko konferentzia edo antzeko beste edozein sistemaren bidez, betiere, ikus-entzunezkoen bidez edo telefono baliabidez, denbora errealean, haien arteko elkarreragina edo interkomunikazioa ziurtatzen bada eta, ondorioz, egintza bateratasuna, eta Kontseiluko Idazkariak parte hartzaileen identitatearen fede emango du. Kasu honetan, konexio-sistema jasota geratuko da deialdian baita, ezargarria bada, bileran bertaratzeko eta parte hartzeko beharrezko baliabide teknikoak non dauden erabilgarri ere. Akordioak Presidenteak dagoen lekuan hartu direla esango da.
6. Administrazio Kontseiluak ere idatziz har ditzake bere akordioak (faxes edo posta elektronikoa barne, originala korreoz bidali baino lehen eta bidali eta gero), bilera egin behar izan barik, kontseilari bat ere prozedura honen aurka jartzen ez bada.
7. Akordioak bertaratu diren edo ordezkatuta dauden kontseilarien gehiengo osoz hartuko dira. Salbuespen gisa, Administrazio Kontseiluko kide kopuru osoaren bi herenaren aldeko botoa eskatuko da, honako gai hauei buruzko akordioak hartzeko:
 - (i) Kontseiluaren araudia onartu eta aldatzeko.
 - (ii) Sozietatearen akordioak eta aliantza estrategikoetarako.
 - (iii) Erakunde-eragiketak onartzeko Taldetik kanpo nahiz Talde barruan, baita hirugarrenen negoziak erosteko ere Taldera sartzeko.
 - (iv) Laguntza publikoak eskatzeko.
 - (v) Estrategikotzat hartzen diren etorkizuneko inbertsioetarako, Lurralde Historiko bakoitzaren berezitasun ekonomikoak eta Lurralde Historikoetako enpresa-sarearen egitura aldeak aintzat hartuta.
 - (vi) Plan estrategikoak eta politika orokorrak onartzeko.
 - (vii) Estatutuetan edo ezargarria den legedian bereziki xedatutakoak.
8. Kontseiluaren bileretara Presidenteak gonbidatu duen edozein pertsona joan daiteke.
9. Kontseiluko deliberazioak eta akordioak Akta Liburuan jasoko dira eta akta bakoitza Presidenteak eta Idazkariak sinatuko dute edo ordezkatu dituztenek.

29. artikulua Kontseilarien ordainsaria

1. Administrazio Kontseiluko kideek, haien eginkizunak betetzeagatik, bertaratze-dieta kontzeptupeko kopurua jasoko dute. Kopuru hori Akziodunen Batzar Nagusiak zehaztuko du, globalki. Akziodunen Batzar Nagusiak zehaztutako zenbateko globaletik kontseilari bakoitzari zehazki zenbat dagokion zehazteko eskuduna Administrazio Kontseilua izango da, betetako karguen arabera, dedikazioaren arabera eta gizarte organoen bileretara izandako bertaratzearen arabera, baita karguaren aldizkakotasunaren arabera ere.
2. Sozietateko funtzio betearazleak hartu dituzten Administrazio Kontseiluko kideek, funtzio horiek betetzeagatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango dute, goi zuzendaritzari dagokion lan-harremanaren pean edo baliokidea den merkataritza-harremanaren pean. Harreman hori Administrazio Kontseiluak zehaztuko du eta atal finkoa izango du eskudirutan, hartutako arduren arabera, eta laguntza atala, dagozkion aurreikuspen eta aseguru sistemak aintzat hartuko dituena; halaber, atal aldakor bat ere izan dezake, Administrazio Kontseiluaren irizpidearen arabera, administratzailearen edo Sozietatearen norbanakoaren betetze-mailari dagozkion adierazle objektiboei lotuta. Horiek guztiak, une bakoitzean ezargarria den legeditik

erartzen den erara ordainduko dira. Era berean, administratzaileak diru-laguntza jasotzeko eskubidea ere izango du, dagozkion funtzioak ez betetzeagatik ez den kargu uztea balego, hori guztiori legeak xedatutakoaren arabera.

3. Sozietatearen jatorria eta izaeraren arabera, eta jatorriz Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián – Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa, eta Caja de Ahorros de Vitoria y Álava-Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxarena zen finantza-negozioa berari egotzi zaionez, Sozietatea lotuta izan daiteke, kontseilari izaerarekin zerikusia duen edozein izaerako kontratu bidez, beti ere, kontratu horiek aipatutako kutxa horietako batek eta Sozietateko kontseilariak sinatu badituzte, Sozietateak subrogazioz jarraitu baitie hasieran parte izan diren kutxei. Kontratu horiek bertan aurreikusitakoaren arabera iraungiko dira, eta Akziodunen Batzar Nagusiari dagokio erabakitzea, kasuaren arabera, luzatu nahi dituen, legez eta estatutuetan xedatutakoaren arabera.
4. Aurreko 2. eta 3. atalen arabera, Sozietateko dirua jasotzen duten Sozietateko Administrazio Kontseiluko kideek, ezin lezakete zenbatekorik jaso bertaratze-dieta kontzeptupean.
5. Sozietateak erantzukizun zibileko aseguruia kontrata lezake bere kontseilariarentzat.

2. atala- ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN BATZORDEAK

30. artikulua Administrazio Kontseiluaren Batzordeak

1. Administrazio Kontseiluak honako hauek sortu eta mantendu behar du bere barruan: Batzorde Betearazlea, Auditoria eta Betetze Batzordea, Arriskuen Kontrol Batzordea, Izendapen Batzordea eta Ordainsari Batzordea. Hauen guztien egitura, funtzioak eta jarduera-erregimena Administrazio Kontseiluko araudiak arautuko du, estatutu hauetan xedatu ez den gaitan.
2. Administrazio Kontseiluak barnerako baino izango ez diren beste batzorde eta komisio batzuk ere sor ditzake, eta Administrazio Kontseiluak berak zehaztutako eskumenak izango dituzte.
3. Kontseiluko Batzorde guztiek gehiengo absolutuaren printzipiopean hartuko dituzte akordioak.

31. artikulua Batzorde Betearazlea

1. Administrazio Kontseiluaren barruan batzorde betearazlea eratuko da. Administrazio Kontseiluari dagokio batzorde betearazlearen kide kopurua zehaztea, baita hauek izendatzea ere.
2. Administrazio Kontseiluak Batzorde Betearazlearen esku utz ditzake legean eta estatutu hauetan edo Administrazio Kontseiluaren araudian xedatutakoaren arabera eskuordetu ezin ez diren ahalmen guztiak.
3. Batzorde Betearazlearen berezko kide izango dira Administrazio Kontseiluko Presidentea eta Presidenteorde biak, baita Kontseilari Delegatua ere.
4. Administrazio Kontseiluko Presidentea Batzorde Betearazlearen Presidentea ere izango da, eta berdinketa gertatuz gero bere botoa ebazlea izango da.

32. artikulua Auditoria eta Betetze Batzordea

1. Auditoria eta Betetze Batzordea gutxienez hiru (3) eta gehienez (5) kontseilariz osatua izango da.
2. Auditoria eta Betetze Batzordeko kideak Administrazio Kontseiluak izendatuko ditu bere kideen artean, eta kontseilari ez exekutiboen artean edo Sozietatean zuzendaritza funtziorik edo funtzio exekutiborik ez duten kideen artean izendatu beharko dituzte, eta izendatuak izango diren karguko kontratu-harremana izango dute, ez besterik. Auditoria eta Betetze Batzordeko kideen heren bat, gutxienez, eta edozein kasutan, bere kideetako bi, kontseilari independenteak izan beharko dira eta kontabilitate eta auditoria arloko edo arlo bietako beren ezaguera eta esperientzia aintzat hartuta izendatuko dira. Auditoria eta Betetze Batzordeko Presidentea, edozein kasutan, kontseilari independente bat izan beharko da.
3. Auditoria eta Betetze Batzordeak Presidentea eta Idazkaria hautatuko ditu bere kideen artean.
4. Auditoria eta Betetze Batzordeko Presidentea kontseilari independenteen artean izendatuko dute. Presidentea lau (4) urterik behin ordezkatuko dute, eta berriz aukeratu daiteke kargua utzi zuenetik

urte beteko (1) epea igaro ondoren.

5. Auditoria eta Betetze Batzordeak, gutxienez, honako funtzio hauek izango ditu:
 - a. Dagozkien eskumenei buruz bere barruan sortzen diren gaiei buruz informazioa helaraziko die Batzar Nagusiari eta Administrazio Kontseiluari.
 - b. Sozietatearen barne kontrolaren eraginkortasuna, barne-auditoria, hala badagokio, eta arriskuak kudeatzeko sistemak gainbegiratzea, baita kontu-auditoreekin auditoriaren garapenean antzemandako barne-kontrolerako sistemaren ahulezia esanguratsuak eztabaidatzea ere.
 - c. Araututako finantza-informazioaren lanketa-prozesua eta aurkezpena gainbegiratzea.
 - d. Administrazio Kontseiluari proposatzea, akziodunen Batzar Nagusiak erabaki dezan, kontu-auditoreen izendapena, ezar daitekeen araudiaren arabera.
 - e. Kontu-auditoreekin beharrezko harremanak ezartzea, hauen independentzia arriskuan jar dezaketen gaiei buruzko informazioa jasotzeko, Batzordeak azter dezan, eta kontu-auditoriaren garapen-prozesuarekin zerikusia duten beste guztiak, baita kontu-auditorien legedian eta auditoria arau teknikoetan xedatutako komunikazio guztiak ere.

Edozein kasutan, kontu-auditoreen eskutik urtero jaso beharko dute Sozietatearekiko edo zuzenean nahiz zeharka honi lotutako erakundeekiko haien independentziaren berrespen idatzia, baita aipatutako auditoreek edo eurei lotutako pertsona edo erakundeek ere, erakunde hauei emandako zerbitzu gehigarrien edo edozein motatako zerbitzuen informazioa, kontu-auditoriari buruzko legedian xedatutakoaren arabera.
 - f. Urtero jaulkiko dute txosten bat, kontu-auditoriaren txostena jaulki baino lehen. Txosten honetan Kontu Auditoreen independentziari buruzko iritzia adieraziko da. Txosten hau, edozein kasutan, aurreko atalean aipatzen den zerbitzu gehigarrien emateari buruzko iritzia adierazi beharko du.
6. Auditoria eta Betetze Batzordea Administrazio Kontseiluak, Batzorde horretako Presidenteak edo, Kontseilari Koordinatzaileak edo, gutxienez, bere kideetako bik (2) deitua den beste bider bilduko da. Deialdia batzordeko Presidenteak egin beharko du, bilera egiteko zehaztu den data baino hiru egun lehenago, gutxienez.
7. Auditoria eta Betetze Batzordea behar bezala eratuta geratuko da bere kide kopuru erdia bertaratur gero, pertsonalki edo ordezkari bidez.
8. Auditoria eta Betetze Batzordeak bertaratu direnen, pertsonalik edo ordezkari bidez, gehiengo osoz hartuko ditu bere akordioak.
9. Auditoria eta Betetze Batzordeko kideek beste kide batuengan delegatu dezakete haien ordezkaritza, baina inork ezin dezake ordezkapen bat baino gehiago hartu bere gain, beraz gain. Auditoria eta Betetze Batzordeko akordioak akta liburu batean jasoko dira eta akta bakoitza Presidenteak eta Idazkariak sinatuko dute.
10. Auditoria eta Betetze Batzordeak, bere Presidentearen bitartez, bere jardueren berri helaraziko dio Batzorde Betearazleari edo, hau ezean, Administrazio Kontseiluari. Informazio tramite hau, helburu horretarako egingo diren Batzorde Betearazlearen edo Administrazio Kontseiluaren bileretan burutuko da, kasuan kasukoa. Hala ere, Auditoria eta Betetze Batzordeko Presidenteak beharrezko irizten badio, hitz egindako gaien premiaren edo garrantziaren arabera, informazioa zuzenean helaraziko zaio Batzorde Betearazleari edo Administrazio Kontseiluari, kasuan kasukoari, Auditoria eta Betetze Batzordearen bileraren ostean egiten den lehenengo batzarrean.
11. Kontseilarien esku jarriko da Auditoria eta Betetze Batzordearen batzarren akten kopia. Administrazio Kontseiluko beste kide batzuk edo aholkularitza lanetan diharduten langile batzuk ere joan daitezke batzarretara, Presidenteak horretarako berariaz gonbidatuta.
12. Auditoria eta Betetze Batzordeak, halaber, kanpoko aholkularitza eska dezake.

33. artikulua Ordainsari Batzordea

1. Ordainsari Batzordea eratuko da, eta ordainsari gaiari buruzko proposamen eta informe ahalmen orokorrak emango zaizkio.

2. Ordainsari Batzordeak gutxienez hiru (3) eta gehienez bost (5) kontseilari izango ditu, guztiak kanpokoak edo ez exekutiboak. Ordainsari Batzordeko kideen heren bat, gutxienez, eta edozein kasutan, bere Presidentea, kontseilari independenteak izan beharko dira.
3. Ordainsari Batzordearen kideak Administrazio Kontseiluak izendatuko ditu, kontseilarien ezagutza, gaitasunak eta esperientzia aintzat hartuta, baita Batzordearen betebeharrak ere.

34. artikulua Izendapen Batzordea

1. Izendapen Batzordea eratuko da, eta kontseilarien izendapen eta kargu-uzte gaiari buruzko proposamen eta informe ahalmen orokorrak emango zaizkio.
2. Izendapen Batzordeak, gutxienez, hiru (3) eta gehienez bost (5) kontseilari izango ditu, guztiak kanpokoak edo ez exekutiboak. Ordainsari Batzordeko kideen heren bat, gutxienez, eta edozein kasutan, bere Presidentea, kontseilari independenteak izan beharko dira.
3. Izendapen Batzordearen kideak Administrazio Kontseiluak izendatuko ditu, kontseilarien ezagutza, gaitasunak eta esperientzia aintzat hartuta, baita Batzordearen betebeharrak ere.

34. bis artikulua Arriskuen Kontrol Batzordea

1. Arriskuen Kontrol Batzordea eratuko da, eta Sozietatearen arriskuen kudeaketa-sistemaren gainbegiratze eta kontrol ahalmenak emango zaizkio.

Horretarako, Administrazio Kontseiluak eman diezazkiokeen beste funtzio batzuen artean, honako hauek izango ditu:

- (i) Sistematikoki berrikustea, arrisku-mota nagusiekiko arrisku-maila;
- (ii) Taldearen arriskuen kudeaketa-kontrol politika eta estrategiei buruzko proposamenak aztertzea eta ebaluatzea;
- (iii) Administrazio Kontseiluari aholkuak ematea Bankuak arriskuaren aurrean duen joera globalari buruz, oraingoa nahiz etorkizuneko, eta eremu horretan duen estrategiari buruz;
- (iv) Administrazio Kontseiluari laguntza ematea, goi mailako zuzendaritzak arrisku-estrategia nola ezartzen duen gainbegiratzeko;
- (v) Sozietatearen arrisku mapa eta bere gain hartzeko arrisku maximoaren profila gainbegiratzea eta aztertzea;
- (vi) Bezeroei eskainitako aktiboen eta pasiboen prezioek ea Bankuaren enpresa-eredua eta arrisku-estrategia erabat aintzat hartzen duten aztertzea, eta arlo honetan antzematen diren gabeziak zuzentzeko dagozkion planak aurkeztu beharko dizkiote Administrazio Kontseiluari; eta
- (vii) Ordainsari Batzordearen funtzioen kalterik gabe, ordainsari-sisteman aurreikusitako pizgarriek ea arriskua, kapitala, likidezia eta irabazien probabilitatea eta oportunitatea aintzat hartzen dituzten aztertzea.

2. Arriskuen Kontrol Batzordeak, gutxienez, hiru (3) eta gehienez zazpi (7) kontseilari izango ditu.

3. Arriskuen Kontrol Batzordeko kideak Administrazio Kontseiluak izendatuko ditu, kontseilarien ezagutza, gaitasunak eta esperientzia aintzat hartuta, baita Batzordearen betebeharrak ere. Ezin izango dira Arriskuen Kontrol Batzordeko kideak izan Sozietatearen funtzio betearazleak dituzten Kontseilariak, eta bere kideen heren bat, gutxienez, eta edozein kasutan, bere Presidentea, kontseilari independenteak izan beharko dira.

IV. TITULUA

SOZIETATEAREN EKITALDIA

35. artikulua Sozietatearen ekitaldia

Sozietatearen ekitaldia urte natural bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasiko da eta abenduaren 31n amaituko da. Salbuespenez, lehendabiziko ekitaldia Espainiako Bankuko Erregistro Berezian inskripzioa egiten deneko datan hasiko da.

36. artikulua Urteko kontuak

Legalki xedatutako epe maximoan, Administrazio Kontseiluak Urteko Kontuak egin beharko ditu. Urteko kontu hauek balantzea, galera-irabazien kontua, ondare garbiko aldaketen egoera, efektibo fluxuen egoera, azalpen-memoria, Kudeaketa Txostena eta dagokion ekitaldiko irabazien erabilera proposamena hartuko dituzte barne. Aipatutako dokumentuak administratzaile guztiek sinatu behar dituzte, ez sinatzeko arrazoi justifikaturik ez badago, eta baldin badago sinadura falta den dokumentu bakoitzean geratuko da jasota.

37. artikulua Irabazien erabilera

1. Akziodunen Batzar Nagusiak onar ditzan aurkeztuko dira Urteko Kontuak.
2. Behin Urteko Kontuak onartuta, Batzar Nagusiak ekitaldiko irabazien erabilera erabakiko du.
3. Dibidenduak ekitaldiko irabazien kargura edo xedapen askeko erreserben kontura banatuko dira, betiere legak eta estatutu hauek xedatutako atentzioak estali badira eta kontabilitate ondare garbiaren balorea ez bada, banketaren ondorioz, sozietatearen kapitala baino baxuagoa. Sozietatearen ondare garbiaren balore hori sozietatearen kapitala baino baxuagoa izatea eragin duten aurreko ekitaldietako galerak baleude, irabaziak galerak konpentsatzeko erabiliko dira.

Batzar Nagusiak dibidendua erabat edo partzialki gauzatan ordaindua izan dadila erabaki dezake, betiere banatuko diren ondasunak edo baloreak homogeneoak badira (aho batez emandako baimena izan ezik) eta Sozietatearen balantzean duten balioa baino balio txikiagoz banatzen ez badira.

4. Batzar Nagusiak erabakiko du ordaindu duten kapitalaren proportzioan akziodunei banatuko zaizkien dibidenduen zenbatekoa, ordaintzeko unea eta era.

38. artikulua Urteko kontuak egiaztatzea

Urteko Kontuak Batzar Nagusiak izendatutako kontu-auditoreek gainbegiratu behar dituzte, LSC eta kreditu-erakundeei buruzko legedi bereziaren arabera eta, oro har, espezifikoki ezar daitekeen araudiaren arabera.

39. artikulua Urteko kontuak gordailatzea

Urteko Kontuak onartu eta hurrengo hilabetean, egoitza sozialaren Merkataritza Erregistroan gordailatzeko aurkeztuko da, legeak xedatzen duen eran, Batzar Nagusiak Urteko Kontuak onartu dituela eta irabaziak nola erabiliko dituen dioten akordioen egiaztagiri. Egiaztagiri honi Kontu horien ale bat erantsiko zaio, baita Kudeaketa Txostena eta auditoreen txostenaren ale bana ere.

V. TITULUA

SOZietATEA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

40. artikulua Desegitea

Sozietatea legeak xedatzen dituen kasuetan desegingo da.

41. artikulua Likidazio era

Akziodunen Batzar Nagusiak Sozietatea desegitea erabakiko balu, honek, Administrazio Kontseiluak hala proposatuta, likidazio era zehaztuko du eta likidatzaile bat edo gehiago izendatuko ditu, beti kopuru bakoitian. Izendapen honek Administrazio Kontseiluak kontratu berriak egiteko eta obligazio berriak hartzeko dituen ahalmenei amaiera ematen die.

Likidazio epealdian, Sozietatearen ohiko jardunean dituen ahalmen berak izango ditu Batzar Nagusiak, eta bereziki, Urteko Kontuak eta likidazioko amaiera-balantzea onartzeko ahalmena izango du.

42. artikulua Likidazio arauak

Sozietatearen likidazioan legeak xedatutako arauak beteko dira.